

Elikadura eta horren ekoizpena

Euskal Herriaren orain
eta etorkizunaren giltza



eTXALDE ✱
nekazaritza iraunkorra

La alimentación y su
producción, claves del presente
y futuro de Euskal Herria

L'alimentation et sa production,
facteurs clé du présent et de
l'avenir d'Euskal Herria

Elikadura eta horren ekoizpena

Euskal Herriaren orain eta etorkizunaren giltza

Elikadura eta horren ekoizpena, Euskal Herriaren orain eta etorkizunaren giltza.....	3
Elikadura burujabetza eta nekazaritza iraunkorra elikadura eskubidearen berme bezala.....	4
MMA ez da elikadura burujabetzarekin loteslea.....	5
EBk eta Kanada arteko Merkatu Libreko Ituna eta AEBkoa, MMA eta NPBren arteko lotura.....	6
Nekazal politikak artikulatuko dituen elikadura politika bat.....	8
Bestelako Elikadura eta Nekazal Politika Bateratua posible da.....	10
Elikadura tokian tokiko politika publikoen bizkarrezur moduan.....	12
Denontzako elikagai osasuntsuak bermatzeko sektoreko egitura eta produkzioa bideratzea.....	15
Ekoizpen, transformazio, merkaturatze, salneurri eta kontsumo behatokia.....	21
Nekazal jarduera osotasunean kontutan izan eta gako sozialetan justua den fiskalitate eraginkorra.....	22
Indarrak biderkatu nekazaritzara jende berri gehiago gehitzeko.....	23
Gaztekerazko bertsioa.....	24
Frantsezko bertsioa.....	46

Akronimoen hiztegia:

MMA: Munduko Merkataritza Antolakundea

NPB: Nekazal Politika Bateratuak

CETA/AECG: Comprehensive Economic and Trade Agreement

TTIP: Merkataritza Librerako Akordio Tratatlantikoa

MERCOSUR: Mercado Común del Sur

EB: Europar Batasuna

AEB: Ameriketako Estatu Batuak

GEO: Genetikoki eraldatutako organismoak

JI: Jatorri Izendapena

IGP/IGP: Indicaciones Geográficas Protegidas/ Indications Géographiques Protégées

LAG: Lurralde Antolamenduarren Gidalerroak

LPP: Lurralde Plan Partzialak/

LPS: Lurralde Plangintza

HAPO: Hiri Antolamendurako Plan Orokorra



Elikadura eta horren ekoizpena, Euskal Herriaren orain eta etorkizunaren giltza

SARRERA

ETXALDE-Nekazaritza iraunkorrak helburu bezala ELIKADURA BURUJABETZAN oinarritutako Euskal Herri bat eraikitzea du. 2011. urtean Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko baserritarrak, proposamenezko eta aldarrikapenezko nekazal sindikalgintza baten inguruko militantziak elkartuta, mugimendu honen artikulazioari ekin genion, honela estrategia bateratu bat abiatzeko asmoz. Elikadura burujabetzatik ekonomia eta gizarte eraikuntzarako gure proposamen politikoa elkartasunari, justizia sozialari, lanpostuen sortzeari eta ekoizpen eskubideen banatzeari, gizon eta emakumeen arteko eskubideen berdintasunari, lehengaien erabilera jasangarriari, biztanleria guztiarentzako elikadura osasuntsuari eta Euskal Herri osoan ekoizpen eta nekazal aniztasunaren errespetuari eduki praktikoa ematearen norabidean definitzen da. Elikagaien ekoizle gisa nekazaritza jasangarria eta agroekologia gure eredu eta zientzia dira, gure jarraibide. Mugimenduaren karakterizazioa gaur egungo nekazal sektoreko antolamendu maparekin bateragarria da, baina batez ere

beste borroka dinamika, antolakuntza eta proposamen lokalizatuago edo konkretuago batzuetan iragazkorra izateko gaitasuna du. Badakigu eraikuntza hau ez dela posible soilik nekazal sektoretik abiatuta, honela gure parte hartzea mugimendu sozial eta sindikaletan dugun estrategian lehentasunezko gaia da. Premisa horietan oinarrituta gure formakuntza eta informazio ekintzak lehenesten ditugu; elkartruke askotan parte hartuz eta bultzatuz, maila lokalean eta nazioartekoan eztabaida guneak dinamizatu eta antolatuz, hilabetekari bat argitaratuz Euskal Herri osoko sektorea barne hartzen

Dokumentu honen bidez ETXALDEk bere hausnarketa eta proposamenak aurkeztu nahi ditu, etorkizuneko Nekazaritza Politika Bateratuen inguruko eta Munduko Merkataritza Antolakundearekin nazioarte mailan negoziazioaren irekieraren testuinguruan

duena eta gure parte hartzea egonkortuz bai mugimendu sozial eta sindikaletan. EHNE-Bizkaia eta ELBren laguntza sindikalarekin ekintza eta koordinazio iraunkor eta egonkor bat artikulatzen joan gara Hego Euskal Herriko eta Iparaldeko dinamiketan, non dinamika lokal asko (ekoizpen-kontsumo, lurraren babesa...) edo sektorialak barneratzen diren. Gure ekimenak, analisiak eta proposamenak gure isla dira siglen gaineratik, eta dokumentu honen bidez ETXALDEk bere hausnarketa eta proposamenak aurkeztu nahi ditu, etorkizuneko Nekazaritza Politika Bateratuen inguruko eta Munduko Merkataritza Antolakundearekin nazioarte mailan negoziazioaren irekieraren testuinguruan. Guzti honek, Euskal Herriko eta Euskal Herrirako proposamenak eta gure posizioa aurkeztera bideratzen gaitu.

Elikadura burujabetza eta nekazaritza iraunkorra elikadura eskubidearen berme bezala

Etxaldetik berretsi nahi dugu elikadura burujabetza proposamen eraginkorrena dela baserritarrei, elikagaien ekoizle moduan, etorkizuna bermatzeko, biztanleriarentzako elikadura osasuntsuaren eskubidea bermatzeko eta Euskal Herri parekide baten eraikuntza ahalbidetzeko; lan eta eskubide sozialen alorrean justua; ekoizpen eta nekazal aniztasunetik lurralde guztietan iraunkorra izan dadin ondasun naturalen erabileran. Etxaldek elikadura burujabetzaren eraikuntza burujabetza ekonomiko eta sozialaren artikulaziotik ulertzen du, lanak eta ardurak mugimendu sozial eta sindikalarekin elkarbanatuz. Eta bertan, Euskal Eskubide Sozialen Kartan aurkeztutako elikadura osasuntsu baten aldeko eskubideen manifestua kokatzen dugu.

Pertsona oroaren elikadura osasuntsurako eskubidearen borroka baloratu beharrekoa da. Bi abiaduretako nekazaritza ekoizpena bultzatzea ez da posible; ekoizpen intentsibo eta industrial bat eta ekoizpen osasuntsuago bat (ekologikoa). Baserritarren funtzioa elikagaien ekoizle eta zerbitzari izatea da, ez industriarentzako lehengai merkeena ekoiztea. Elikadura burujabetzak, ekoizpen lokalarekin lotura izateaz gain, ekoizpen eredu bati lotutako izaera du (tokian tokiko kontsumoaren beharrianak asetzeko bideratua) eta ez da nekazaritza intentsibo eta industrial batekiko bateragarria nahiz eta berau lokala izan. Nekazaritza iraunkor batean oinarritutako eredu batekin soilik izango da posible elikadura burujabetzaren printzipioak artikulatzea, eta barneratzen dituen baloreak azpimarratzen jarraitu beharra daukagu: ekoizpenaren banaketa ahalik eta baserritar gehienaren artean egitea (ezinbestekoa litzateke ondasun naturalen kudeaketa egokiko ikuspegi batetik ekoizle kopurua biderkatzea); ingurumena errespetatuz kalitatezko elikagai nahikoa ekoiztea gizarterako (lanpostu berrien sorreratik soilik da posible eta ez kapitaletik); ekoizpen prozesuan gehiengo autonomiara heltzea, baliabide propioak gailenduz eta kanpo inputak murriztuz; kontsumitzailearentzako gardentasun osoa bermatuz produkzio, eraldaketa, merkaturatze eta bukaera prezioaren eraketa prozesuan; gure ekoizpena bertako merkatuetara bideratu, kanpo merkatuen konkistetatik ihesi, elkartzasunean, osagarritasunean eta merkataritza justuan oinarritutako beste harreman ekonomiko batzuk probestuz; gure herri eta herrialdeetako garapen lokalaren parte aktiboa izatea. Ekoizle eta kontsumitzailearen arteko erlazioetan gardentasuna, konfiantza eta etika bidaide hartu behar ditugu. Balore guzti hauek beste parametro orokor batzuetan oinarritzen dira eta kontutuan hartu beharra ditugu: elikagai osasuntsu eta kalitatekoen probesle izatea, nekazaritza industriak sorturiko elikagaien alarmak ekidituz eta planetaren osasuna agroekologiaren bitartez bermatuz; Hegoaldeko herrietako nekazariak beraien bizia duintasunez berreskuratzea ahalbidetu, pobrezia eta gosea ezabatuz; landa eremuetaratu, berlokaltatu eta iraunkorraren ekonomia bultzatzaile izatea (mugimendu espekulatibo eta ekonomikoetatik kanpo); planetaren tenperaturaren murrizpenean lagundu eta bere aberasgarritasuna animalien eta landareen aniztasunaren bitartez bermatuz; hiritar eta baserritarren arteko lotura sendotuz elikadura kultura eta jakintza berreskuratuz.



Bi abiaduretako nekazaritza ekoizpena bultzatzea ez da posible; ekoizpen intentsibo eta industrial bat eta ekoizpen osasuntsuago bat (ekologikoa). Baserritarren funtzioa elikagaien ekoizle eta zerbitzari izatea da, ez industriarentzako lehengai merkeena ekoiztea

Elikadura burujabetzak, ekoizpen lokalarekin lotura izateaz gain, ekoizpen eredu bati lotutako izaera du (tokian tokiko kontsumoaren beharrianak asetzeko bideratua) eta ez da nekazaritza intentsibo eta industrial batekiko bateragarria nahiz eta berau lokala izan



MMA ez da Elikadura burujabetzarekin loteslea

Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta elikadura burujabetza bi kontzeptu antagoniko dira. Lehenengoak, pausuz pausu mundu mailako merkatu libre bat eraikitzea du helburu, baita nekazaritzan ere, honela munduko parte batetik bestera eta inolako aurkakotasun gabe ekoizpenak eraman ahal izateko, betiere kostu ekonomiko baxuena suposatzen duen tokietan ezarriz. Ondorioz, munduko toki bakoitza ekoizpen konkretu batean bereizten da kostuen murriztapenean oinarrituz. Lehiakortasun honetan, begirada sozial, lokal, ekonomiko eta ingurugiroarenak ez dauka balorerik. Gatazka honetan aurkitzen dira alde batetik makineria handietaz baliatuz 1500 tonelada zereal ekoizten duen Europa eta Ipar Amerikako ekoizlea eta 2 tonelada ekoizten dituen Afrikar ekoizlea. Gatazka berdin honetan aurkitzen dira ere herrialde aberatsetako nekazaritza, zeintzuk laguntza ikaragarriak dituzten, eta herrialde txiroetakoak, zeintzuek ez daukaten inolako laguntzarik. Gatazka berebean ere aurkitzen dira 28 miloi baserritar, beraien lurra traktorez lantzen dituztenak eta 250 miloi baserritar animalien bidez lantzen dutenak eta ia 3 mila miloi ekoizlek eskuz lantzen dutenak inolako laguntza mekaniko ez animalia gabe. Gatazka horretan aurkitzen dira ekoizleen %80a zeintzuk NPB laguntzen %20 jasotzen duten,

eta ekoizleen %20, laguntzen %80a jasoz (Hego Euskal Herrian %10ak laguntzen %60a jasotzen du). Behi esnearen produkzio esanguratsuen baitan ere bada 250.000 litro esne ekoizten dituen urtean eta miloi bat litro ekoizten dituen.

MMAk inolako zalantza gabe, ekoizpen industrial eta intentsibo baten aldeko apustua egiten du, esportaziora zuzendutako sektorean espezializatuz. Baina, azpimarra beharra dugu, merkatu lokaletarako ekoizten

duten baserritarrek biztanleriaren %70a elikatzen dutela, eta elikagai horiek mahaira eramateko erabiltzen diren baliabideen (ura, lurra, erregaia...) %25a soilik erabilita. Nekazal ekoizpena ezin da munduko merkatuko gorabehera eta menpekotasunari lotuta egon. Merkatua da nekazal ekoizpenaren logika errespetatu behar duena. Nekazaritza elikadura da, eta elikadura bai hemen eta bai munduko edozein txokotan, eskubide ukaezina.

Nekazal ekoizpena ezin da munduko merkatuko gorabehera eta menpekotasunari lotuta egon. Merkatua da nekazal ekoizpenaren logika errespetatu behar duena. Nekazaritza elikadura da, eta elikadura bai hemen eta bai munduko edozein txokotan, eskubide ukaezina

Europar Batasuna eta Kanada arteko Merkatu Libreko Ituna (CETA) eta AEBkoa (TTIP), MMA eta NPBren arteko lotura

Merkatu libreen inguruko negoziazio orok kutsu berdina dute: isilpekotasuna eta gardentasun falta. Opakotasun mailak mantentzen diren arren (batez ere TTIParen kasuan), mobilizazio sozialek eta filtrazio ezberdinek argitara ekartzen hasi dira negoziatzen ari diren gai eta berauen ondorioez. Honek, maila politikoari itauntzea eta kontraesanak sortzea ahalbidetzen du, negoziazio prozesuaren aurkako ikuspuntua artikulatzeaz gain. Bai CETAk eta bai TTIPk, bat egiten dute multinazionalen interesak babestearen helburu nagusian. Azkenaldian gainera, horrenbesteko presioa ari dira sartzan CETA modu behin behinekoan aplikatzen hasi direla, nahiz eta oraindik ez eztabaidatua ezta bozkatua ez izan. CETAREN berehalako aktibazioaren asmoa negoziazioaren edukiak babestea da, azkenaldiko gizarteak erakutsitako zalantza eta arduraren aurrean, eta Estatu Batuekin TTIParen negoziazioak errazteko asmoz. Batez ere azkenaldian gero eta argiagoa delako elikagaien ekoizpenaren eta elikadura segurtasunaren inguruan dagoen ikusmoldea EB eta Kanada-AEB artean kontraesanez betea dagoela. Laburbilduz, ezin daitezke alderatu Europako elikadura gidak aurkezten dituen neurriak eta Kanada eta AEBk proposatzen dituenak. Adibide batzuk emanez:

Raptopaminaz txertatutako okelak. Raptopamina botika (hormona) bat da hazkuntza azkartzen duena, oso ohikoa ardi, txerri eta hegaztien (indioilarrak batez ere) loditze prozesuetan. Munduko 160 herrialdeetan debekatua (EB baitakoetan ere) giza osasunaren duen eraginaren ardura dela eta. Kanada eta AEBn raptopamina baimendua dago, eta al-baitaritzan okela ekoizpenerako droga bezala erabiltzen da.

Genetikoki eraldatutako elikagaiak. Kanada, munduko hiru herrialde garrantzitsuenen artean aurkitzen da genetikoki eral-

datutako elikagaietan (GEO). Beraien esanetan ez omen dago inolako frogarik elikagai transgenikoak elikagai tradizionalak baino kaltegarriagoak direla, eta hau dela eta, ez dute derrigortasunik transgenikoak bereiztean. EBN aldiz, edozein alterazio genetiko jasotakoak espreski etiketatutak egon beharra dute. Nahiz eta EBN ez diren ekoizpen transgenikoak giza kontsumorako erabiltzen, baimentzen da bai soja eta bai arto transgenikoa animalien elikaduran erabiltzea, Kanada eta AEB izanik honen esportatzaile nagusiak. Beste bi elikagai kontutan hartzekoak sagarra (ugertu ez daiten eraldatua) eta izokina (behar duen denboraren erdian heldu baten tamaina hartzea ahalbidetzen duena) dira. Kanadak bi elikagai hauen ekoizpena ahalbidetzen du eta interes handia erakusten ari da berauen europar merkaturatzearekin.

Sor markak. Esan beharra dago, CETAREN baitan izandako negoziazioetan 174 sor marka baino ez direla aipatzen, European 1400 onartuta dauden bitartean. Hau da, sor marketatik kanpo %90a geratuko da. TTIP akordioaren baitan, Europatik garrantzia handia eman zaio Adierazle demografiko Babestuen babesari, baina lobbyen eta Amerikar Kongresuaren oposizioa oso gogorra izan da. Europar Batasunak arrakasta izango balu negoziazio hauetan, ziur ekoizle jakin batzuen eta herrialde batzuen alde izango zela soilik.

Burujabetza galera eta merkatu kontrol-erako tresnen desagertzea. Kontsumitzaileen osasunaren kalterako izateaz gain, betebeharren desagertzeak nekazal ekoizpen ezberdinei ere eragingo die zuzenki. **Behi okela eta txerri okelari** dagokionez, betebeharren desagertzeak AEBtatik inportatutakoak asko areagotzea ekarriko du. Orain arte ikusi dugunaren arabera, esan daiteke, Europak okela hormonatuaren sartzearen

Bai CETAk eta bai TTIPk, bat egiten dute multinazionalen interesak babestearen helburu nagusian. Azkenaldian gainera, horrenbesteko presioa ari dira sartzan CETA modu behin behinekoan aplikatzen hasi direla, nahiz eta oraindik ez eztabaidatua ezta bozkatua ez izan

Beste bi elikagai kontutan hartzekoak sagarra (ugertu ez daiten eraldatua) eta izokina (behar duen denboraren erdian heldu baten tamaina hartzea ahalbidetzen duena) dira. Kanadak bi elikagai hauen ekoizpena ahalbidetzen du eta interes handia erakusten ari da berauen europar merkaturatzearekin

Abereen bizi baldintzak aldiz oso ezberdinak dira eta kontraesanez beteak. Europar arauak askoz ere zorrotzagoak dira, debekatuta dago esaterako patogenoak murrizteko garbiketa. Nahiz eta akordioa ez den erraz ikusten, bada mesfidantza Europa garbiketa kimikoen onarpenari bideak zabaltzearen inguruan

Merkatu libreko itun hauek dituzten ondorioak nabarmenak dira, betebeharren desagertzeaz gain, materia sozialetan, osasunean, ingurugiroan, lan baldintzetan eta elikaduran oinarrizko araudiaren desagertzea ere badakar. Honetaz gain, hainbat zerbitzu publikoren pribatizazioa, zeintzuk biztanleriaren oinarrizko eskubide diren, ere badakar

Ez da posible ekonomia lokalen eta zerbitzu publikoen suntsipenetik ezer eraikitzea. Esfortzuak biderkatu beharra ditugu beste modu bateko harreman sozial eta ekonomikoak egiterik badagoela frogatuz, osagarritasunean, merkataritza justu eta elkartasunean oinarritua

gaineko debekua mantentzea lortzen badu, bestaldetik inportazioen kuota modu nabarmenean igotzea ekarriko duela. Ekoizleen aldea modu esanguratsuan kaltetua izango da, izan ere eskaintza gehiegi izanda prezioen beheraka handia ekarriko luke. **Esnekiei** dagokionez, Europar Bata-sunak AEBko merkaturan berauen presentzia handitu nahi du, nahiz eta amerikarrek kontzesio gutxi eskaini beraien ekoizpen sarea babestu nahian. Merkatu kuota handiago bat eskuratuz gero, hau gaztagintzan izango litzateke. Beraz, irabazle hipotetikoak gazta industriari izango ziren. **Nekazaritza ekoizpenean** bai EB eta bai AEB ekoizle handiak dira, AEBtako esportazio handi bat soja eta soja irinera mugatuz. Betebeharren desagertzea europar ekoizpenaren murrizpen bat ekar dezake. **Hegazti sektoreari** dagokionez (arraultza eta okela) amerikar nahia europar merkaturan txertatzea litzateke. Abereen bizi baldintzak aldiz oso ezberdinak dira eta kontraesanez beteak. Europar arauak askoz ere zorrotzagoak dira, debekatuta dago esaterako patogenoak murrizteko garbiketa. Nahiz eta akordioa ez den erraz ikusten, bada mesfidantza Europa garbiketa kimikoen onarpenari bideak zabaltzearen inguruan.

Merkatu libreko itun hauek dituzten ondorioak nabarmenak dira, betebeharren desagertzeaz gain, materia sozialetan, osasunean, ingurugiroan, lan baldintzetan eta elikaduran oinarrizko araudiaren desagertzea ere badakar. Honetaz gain, hainbat zerbitzu publikoren pribatizazioa, zeintzuk biztanleriaren oinarrizko eskubide diren (TISA kasua MMAko 23 partaideen parte hartzea dutena, sektoreko mundu mailako komertzioaren %70 ordezkatuz) ere badakar. Korporazioek gobernuekiko duten kontrola sakonduko da. Ez da posible ekonomia lokalen eta zerbitzu publikoen suntsipenetik ezer eraikitzea. Esfortzuak biderkatu beharra ditugu beste modu bateko harreman sozial eta ekonomikoak egiterik badagoela frogatuz, osagarritasunean, merkataritza justu eta elkartasunean oinarritua. Negoziazio hauek duten eraginaren inguruan pedagogia egitea beharrezkoa eta ezinbestekoa da, interes handiago bat sortarazteko eta negoziazio hauen porrota ahalbidetuko duen mobilizazio sozial bat artikulatzeko. Hau berresteko datu objektibo bezala, hau da, gizarteak duen gaitasuna negoziazio hauetan eskuhartzeko, CETaren inguruan eginiko mobilizazioa eta TTIParen ingurukoa ditugu. Bigarren kasuan izandako eskuhartze aukera askoz nabarmenagoa izan da, eta proportzionala izandako mugimendu sozialaren artikulazioarekin. Geroz eta mugimendu sozial handiagoa are eta aukera gehiago negoziazioetan eskuhartzeko.

Nekazal politikak artikulatuko dituen elikadura politika bat (MMA, NPB...)

Urte askotan mantendu da, nekazaritza industrialak soilik bermatu dezakeela munduko biztanleria elikatzeko adina elikagai, kopurua kalitatearen aurretik jarritz, prezio baxuko produktuak kontsumitzaileari eskainiz. Errealitateak ordea, datuak eskaintzen ditu argudio hauek ezeztatuz. Gero eta industrializazio eta intentsifikazio handiagoa nekazal sektorean, hare eta gose, pobrezia, desplazamendu, desertifikazio, aktibitate uzte... gehiago. Modu esponontzian biderkatzen dira. Irizki publikoan gero eta gutxiago baloratzen da lehiakortasun printzipioan oinarritutako garapen modelo hori, eta honi buelta emateko argudioak trinkotu behar ditugu. Testuinguru honetan kokatzen dugu Erregioen Europar Batzordeak 2017ko Uztailean "NPB 2020tik aurrera" ateratako txostena. Honen baitan honakoak azpimarratu nahi ditugu:

Urte askotan mantendu da, nekazaritza industrialak soilik bermatu dezakeela munduko biztanleria elikatzeko adina elikagai

Errealitateak ordea, datuak eskaintzen ditu argudio hauek ezeztatuz. Gero eta industrializazio eta intentsifikazio handiagoa nekazal sektorean, hare eta gose, pobrezia, desplazamendu, desertifikazio, aktibitate uzte... gehiago

- NPBak nekazal politika justu, iraunkor, elkartasunean oinarritua eta kalitatekoa izan behar du. Nekazarien, kontsumitzaileen eta biztanleriaren zerbitzura dagoena. Elikadura eta nekazal politika sendo eta bateratu batek soilik berma dezake europar elikadura segurtasuna.
- Norbanako nekazari edo abeltzainak dira protagonista printzipal eta NPBaren hartzaileak. Nekazal Politika Bateratuak presente izan behar du bere papera eta ezartze era. Zehazki, nekazal edo abeltzain jarduerak ekonomikoki bideragarriak izatea, honela bizimodu duin bat izateko eta landa eremuen bizitza lan maila egokian bermatzeko.
- Etorkizuneko NPBa eraikitzeke unean europar kontsumitzaileekin ere kontatu behar dela uste du eta Europar Komisioari atentzioa deitzen dio kontsumitzaileen artean sortzen hasi den sentsibilizazioa dela eta. Sentsibilizazio hau argi ikus daiteke ekoizpen lokal eta kalitatezko elikagaien eskaeraren igoeran, baita prezio justu batean saldutakoa, edota animalien ongizatea errespetatzen dutenak, lanpostuak sortzen dituzten ekoizpenak eta ingurumenaren alorrean balore gehigarri bat eskaintzen duten elikagaien gorako joera.
- Merkatu erregulatu batek ekoizleen partearen diru irabaziak modu justuan bermatu ditzakela ere esaten da, honela, nekazal bizi eredia erakargarriagoa izango da eta elikagaien kalitatea eta segurtasuna bermatuta geratuko da.
- NPBe osatzen dute diru laguntza aktiboki lanean dabilen baserritarrari eman behar zaiola uste da. Modu zuzenean aktibitatea aurrera eramaten dutenen artean banatu eta ez esplotazio inaktiboetan.
- Merkatuen erregularizazioa hainbat sektoretan eraginkorragoa eta koste gutxiagokoa dela uste da, geroagoko krisi neurriak baino.
- EB lehenengo esportatzaile eta inportatzaile mundiala bilakatu dela azpimarratzen da. Beste herriekiko menpekotasuna areagotu da, eta politika komertzial kontrajarria abiarazi du bere negutegi efektuko jarioen murrizpenaren aurka.
- Landa eremuak eta herri-hirien arteko ezberdintasuna areagotzen ari dela salatzen da, eta honekiko ardura erakusten da.
- Halaber, osasun publikoari kostuak ekartzen dizkion elikadura ohiturak ikusten dira, obesitatea, diabetesa... sortuz. Nekazal jardun batzuetan ere jartzen du jo puntua (antibiotikoen gehiegizko kontsumoa, plagiziden nahasketa...) kostuen igoera azpimarratuz. Honela, kostu hauek NPBak baino altuagoak dira eta koordinazio hobea egon beharra eskatzen da nekazal politika eta elikaduraren artean.



Erregioetako Europar Komitearen gomendio hauek gure planteamenduarekin bat egiten dute. Hau oinarri hartuta posible da NPB justuago eta eraginkorragoa eraikitzea. Europar Komisioaren proposamenak nekazal politiken inguruan 2020 urtetik aurrera, **Elikadura eta nekazaritzaren etorkizuna** izenburupean aurkeztutakoak, ez ditu NPBen behin eta betiko porroten zergatietan sakontzen. **Osasuna, elikadura eta jasangarritasuna** oso lotuta daude garapen, ekoizpen, eraldatze, banaketa eta kontsumo erduekin; eta nahiz eta Komisioak espazio erretorikoak bideratzen dituen bere proposamenean, agroekologian oinarritutako nekazal eredu jasangarri baten babesean eta definizioan ez du aurrera egiten. Esportazio eta inportazio tasak handitzearen apustua, merkatuen erregulaziotik ihesi, salneurrien krisi ohikoei ekiditu nahiez, Komisioaren nahi eza erakusten du salneurrien gorakako joera dakarren merkatuen erregularizazio ezari konponbidea aurkitzeko unean. Oraingoan arazoak eta konponbideak formula berbera dute: merkatuen (des)erregularizazioa aktibatuko dituen tresnak. NPBen **laguntza zuzenak eta honen banaketa**, hektarea kantitate eta ekoizpenaren arteko banaketari jarraitu behar dio, eskuratu diren laguntzen tope bat jarritz. Elikagaiak ekoiztu gabe laguntza zuzen horiek jasotzea ahalbidetzea eta lur hektarea gehiago esku gutxiagotan egotea, desberdintasuna eta injustizia

Osasuna, elikadura eta jasangarritasuna oso lotuta daude garapen, ekoizpen, eraldatze, banaketa eta kontsumo erduekin; eta nahiz eta Komisioak espazio erretorikoak bideratzen dituen bere proposamenean, agroekologian oinarritutako nekazal eredu jasangarri baten babesean eta definizioan ez du aurrera egiten

gailentzea dakar baliabide publikoen banaketan, zeintzuek NPB osoaren %70 suposatzen duten. **Nekazal jardunera jende berria txertatzea** marko berrian lehentasunezkoa izatea azpimarragarria da, salneurrien segurtasun ezak, etenik gabeko merkatuen krisiek, lurra bereganatzeko zailtasunak, laguntzen banaketan ematen diren injustiziek...; benetako generazio errelebo baten aurkako bidea daramate. Landa garapenetako politikak plan estrategikoetara pasatzea

ondo egon liteke, zeintzuetan kideak diren herrialdeek esku hartze eta protagonismo gehiago duten, beti ere, helburu bateratuak ongi finkatuta badaude, nekazal eredu jasangarri, kalitatezko, dibertsifikatu eta lan postu sortzailean oinarrituta. Helburuen aurretiazko definizio hori, gaur egungo status quo hori, **plan estrategikoz** apaindua mantentzearen tentazioa argia da. Landa eremuen etorkizunaren promozioa, bioekonomia landa garapeneko elementu dinamizatzaile bezala, kontzeptu barri bat aurkezten digu lehengo joko bereberean jarraituz. Jakin badakigunean, landa garapena bermatzeko modu bakarra elikagaien ekoizpenean eta nekazal jardueran oinarritzea dela. NPB berri bat sortzea beharrezkoa da. Hasteko beharrezkoa da Elikadura politika Nekazal politikaren erdigunean jartzea, Elikadura burujabetza izan behar da NPbaren ardatza. Ber balorazioa azpimarratzearekin jarraitzen dugu, honek lehenago indarrean zeuden hainbat neurri eta mekanismo berreskuratzea suposatzen baitu; ekoizpenaren kontrola, salneurri minimoen bermea eta mugen kontrola adibidez.

Bestelako Elikadura eta Nekazal Politika Bateratua posible da

Etxaldetik argi esan nahi dugu posible dela bestelako NPBa artikulatzea, non Elikadura politikak protagonismo argia izango duen proposamen eta ezarri beharreko neurrietan. Europar instituzioak barneratzen dituen, kide diren estatuak eta baita gobernu eta entitate lokalak. Tokian tokiko errealitateetatik abiatu beharreko diseinuarekin, non lurraldeek elikaduraren inguruan beraien helburuak diseinatzeko ahalmena izango duten (osasun gaiak, lana, ondasun naturalen kudeaketa, kultura...) eta biztanlegoaren beharrak asetzen dituen. Laburbilduz, enplegu tasa gorena, kalitatezko ekoizpena eta kantitate nahikoan lurralde eta biztanleriaren zerbitzura gako bezala duen kuadro lokala. Eta europar mailan, elkartasun eta jasangarritasunak garapenerako justizia soziala deritzona gorpuztuko duena.

Ekoizle, kontsumitzaile eta biztanleria orokorraren zerbitzura dagoen Elikadura eta Nekazaritza Politika mantendu eta bultzatzeko, Europak ondorengo tresnak artikulatu behar ditu; garapen ekonomikorako gakoak (ekoizle gehiago), sozialak (biztanleria elikagai osasuntsu eta kalitatekoekin elikatu, ondasun naturalen kudeaketa egokia) eta kulturalak. Honetarako nahi ta nahiezkoa da:

- Ekoizpena kontrolatzeko tresnak eta kide diren estatuen eta lurraldeen arteko ekoizpenaren banaketa orekatua elikadura beharrianak asetzuz. Ekoizpen kostuak ordaintzeko elikagaien salneurriak segurtasun tresnaz doituta egon beharra dute (ekoizleen lanaren ordaineko soldata barneratuz).
- Elikagaien esportazioan lehenagotze neurri guztien deusezteia, kanpo elikadura laguntza eta esportazio maileguak barneratuz.
- Mugetan babesa, inportazio eskubideak Europan ekoiztiko elikagaietara murriztuz.
- Lehiakortasun legearen berrikuspena, salneurrien inguruko prozesu negoziatzaileetan parte hartzeko aukera eman ekoizle parteari eta adostasun minimoak exijituz alde guztiei hitzarmen kolektibo eta kontratuen bidez bermatuz.
- Laguntza zuzenak (lehen zutabea) elikagaien ekoizleei bakarrik zuzendu, berauek protagonista nagusi eta hartzaile moduan. Hartuko diren laguntzetan tope bat ezarri eta laguntza sistema justu eta orekatu bat bermatu ekoizle, estatu kide eta lurraldeen artean.
- Lehen zutabeko baliabide ekonomikoak berreskuratzeko ahalmena Landa garapenerako politikak artikulatzeko.
- Landa garapenerako politikak artikulatu (bigarren zutabea) ekoizleak ekoizpen eredu jasangarri batera pasatzen laguntzeko neurri eta laguntza zehatzen bidez (ekoizle gehiago txertatu, transmisioaren sustapena, agroambientalak, zailtasun orografikoak eta ekoizpenerako kaltetutako guneak, bazka produkzioa indartu, funtzio aniztasuna, tamaina txikiko produkzioen mantenimendua, ekoizpenaren dibertsifikazioa,...)
- Banakako zein taldeko kontratuen bitartez ekoizpen jasangarri baterako trantsizioa garatu; lurra oinarri izatearen baldintza duena, ondasunen kudeaketa jasangarria, animalien ongizatea, tratamendu duina eta berdintasunezkoa inorekiko lanaldia dutenentzat eta lurraldeen elikadura beharrianak asetzen dituen. Planetaren hoztearekin konpromezu elkarbanatua kontratu honen baitan sartuz.



Etxaldetik argi esan nahi dugu posible dela bestelako NPBa artikulatzea, non Elikadura politikak protagonismo argia izango duen proposamen eta ezarri beharreko neurrietan. Europar instituzioak barneratzen dituen, kide diren estatuak eta baita gobernu eta entitate lokalak. Tokian tokiko errealitateetatik abiatu beharreko diseinuarekin, non lurraldeek elikaduraren inguruan beraien helburuak diseinatzeko ahalmena izango duten eta biztanlegoaren beharrak asetzen dituen. Laburbilduz, enplegu tasa gorena, kalitatezko ekoizpena eta kantitate nahikoan lurralde eta biztanleriaren zerbitzura gako bezala duen kuadro lokala



Ekoizpen errealitateari itsatsita eta egoerari lotua egon behar da Europar markoko neurrien exekuzioa, eta testuinguru honetan gobernu eta entitate lokalek garatu beharrekoaren kudeatzaile izan behar dute. Euskal Herrian, gaur egungo instituzio eraketatik abiatuta, baina kudeaketa tresnak herrialde ikuspegitik artikulatuta, bai ekoizle partera eta bai kontsumitzaileira

Ardatz hauen artikulazioa ez da utopia bat, gure historiaren parte izan baitira. NPB berri baten aldarrikapenaren baitan ere, MMA eta Merkatu libreko logikari buelta ematea beharrezkoa da.

Ekoizpen errealitateari itsatsita eta egoerari lotua egon behar da Europar markoko neurrien exekuzioa, eta testuinguru honetan gobernu eta entitate lokalek garatu beharrekoaren kudeatzaile izan behar dute. Euskal Herrian, gaur egungo instituzio eraketatik abiatuta, baina kudeaketa tresnak herrialde ikuspegitik artikulatuta, bai ekoizle partera eta bai kontsumitzaileira. Elikadura eta Nekazaritza politika berri baterako ibilbide honetan honen ezarpen lokala oinarritu behar da:

- Ekoizpen eskubideen kontrol eta kudeaketa publiko bat bermatu, elikadura beharizanek bermatzeko helburuarekin eta lan postuen gorakada ekoizpen partean, beharizanek asetzuz. Eskubideen salerosketako barne merkatuen debekua.
- Elikadura katearen baitan dauen alderdien arteko negoziatzaileentzako espazioak artikulatu, non salneurrien hitzarmenak, hitzarmen kolektibo eta kontratu bidez, emango den egonkortasuna kate guztirako sustatuz.
- Lehenengo zutabeko laguntza zuzenak ekoizleei eta ekoizpenari eskusiboki bideratu eta kudeatu, eta ekoizpen azpi sektorea zein den axola gabe laguntzen onuragarria izateko eskubidea bermatu.
- Lehenengo zutabeko diru laguntzak zehazteko garaian hurrengo hiru adierazleetan oinarritua izatea: ekoizpena biratutako hektarea kopurua, ekoizpena bideratutako abelburu kopura eta landa gunean bizitza populazioa bermatzeko.
- Pertsona aktiboko erreferentzia-irabazien maila gainditzean laguntza zuzenak eteteko tresnak artikulatu. Pertsona aktibo bakoitzak hartutako kopuruaren arabera muga ezberdinak ezarri; erreferentzia errenta eta hirurogei mila euro bitarteko kopuruei %15a, eta hirurogei mila euro gainditzen dutenei %30a. Atxikipen hauetatik sortutakoa nekazal aktibitateari txertatutakoei zuzendu laguntza zuzen moduan, txertaketarako laguntza zehatz moduan edo elkartasun fondeo eraketarako bideratu.
- Ekoizpen jasagarri baterako bidea exekutatu esplotazio kontratuen garapenaren bitartez eta Landa garapenerako planak Europako parametroetan definituak, exekutatu.

Lehenago aipatu bezala, europar mailako ekintzek ez dute gure instituzioen ahalmena murriztu behar elikadura eta nekazal politika propioak artikulatzeko unean. Ezinbestekoa da arlo lokalean aurrera egitea europar edo maila globalean eragiteko.

Elikadura tokian tokiko politika publikoen bizkarrezur moduan

Kontsumitzaileen interesean gero eta leku gehiago hartzen dabil azkenaldian elikadura eta honen jatorria. Badaude hau egiaztatzen duten adierazleak: eskola jantokietako azkenaldiko eskaera bertako jaki osasuntsuak kontsumitzeko jangeletan, kontsumitzailea eta ekoizlearen arteko harreman zuzena lantzen duten tekniken gorakada (milaka familia eta ehundaka ekoizle daude kontsumo taldeetan antolatuta), ekoizleek jasotzen duten ordainarenganako arduraren eta sentsibilizazioa, erosketa puntu erraldoietan produktu lokalek hartzen duten espazioaren biderkatzea (berau desberdintzeko elementu moduan erabiltzen da),... Adierazle objektiboak dira guzti hauek eta begirada estrategiko batez begiratu behar ditugu. Ez da joera koiuntural bat, geroz eta argiago ikusten da ekoizpen lokalak konfiantza gehiago eskaintzeaz gain, tokian tokiko ekonomiaren berpiztearen sinonimo ere badela eta ekoizlearenganako ordainsari justuago bat ere. Baina ematen ari diren joera hauen irakurketan zorrotzagoak izan beharra dugu, ikuspegi komertzialeko hobekuntza mekanismoetan soilik ezin gara geratu. Kontsumitzaileen eskaria asetzea ekoizleen txertatzearekin soilik lortuko dugula argi izan behar dugu. Bestetik, konfiantza joera hau finkatzeko, gardentasunean eta balio etikoetan oinarritu beharra daukagu, gure ekoizpen modu iraunkorra gailenduz. Gaur egun, modu lokalean ekoiztutako ortuarien eskaera, ekoizpena baino altuago da. Datu erreal bat da hau, beraz, ekoizpen partean txertatze bat beharrezko dela adierazten da.

Ez da joera koiuntural bat, geroz eta argiago ikusten da ekoizpen lokalak konfiantza gehiago eskaintzeaz gain, tokian tokiko ekonomiaren berpiztearen sinonimo ere badela eta ekoizlearenganako ordainsari justuago bat ere

Ezinbestekoa da administrazio publikoei azpimarratzea oinarrizko beharrizanenak bermatu behar dituela, eta beharrizan horietan elikadura osasuntsu eta kalitatekoa egon behar da, bai produktu galkorretan zein freskoetan ere. Beharrezkoa da tokian tokiko elikadura politika publikoen bizkarrezur moduan aurkeztea

Euskal administrazioak ere bi abiaduretako nekazaritzaren menpe daude. Tokian tokiko ekoizpenari lotuta finantzazio neurri garrantzitsuak ematen diren bitartean (sor marken inguruan edo marka edo kalitate ziurtagirietan), ez dira gai mekanismo eraginkorrrak aktibatuz erosketa publikoetan eskuhartzea ahalbidetuz. Baserritarrek errenta duin bat izatearen eskubidea, norbanakoak elikagai osasuntsu eta kalitatekoa prezio justu batean izatearekin alderatu daiteke. Ezin dugu onartu elikagai lokalen kontsumoa luxu bat bezala ikustea ezta bere kontsumoa momentuko ekintza folkloriko bat izatea. Ezinbestekoa da administrazio publikoei azpimarratzea oinarrizko beharrizanenak bermatu behar dituela, eta beharrizan horietan elikadura osasuntsu eta kalitatekoa egon behar da, bai produktu galkorretan zein freskoetan ere. Beharrezkoa da tokian tokiko elikadura politika publikoen bizkarrezur moduan au-



Bost urtetako epean, erosketa publiko bidez eskaintzen den elikaduraren %40a tokian tokikoa eta gertukoa izatea (lehentasuna emanez baserriratze berriei eta eskala txiki-ertaineko ekoizpenei) proposatzen dugu. Eta 2027 urtera begira zifra hori %55era igotzea

Proposamen hauen egitea gauzatzeko beharrezkoa da Elikagaien kontseilu lokal eta komarkalak artikulatuko dituen prozesuak bultzatzea. Bilbo eta Iruñea bezalako hiriak Milango hitzarmenean inplikatzeko bide honetan jarraitzeko erreferentzia izan litezke



rkezte. Azkenaldian gero eta oihartzun gehiago hartzen hasi den jantoki publikoetan (eskola, ospitale eta erresidentziak) elikagai lokalak kontsumitzearen aldarriak apustu argiak behar ditu, helburu handiak markatuz, ekoizpen fasean lanpostuak sortaraz ditza-keenak, hezkuntza fasean eta aipatutako espazioen zainketetan sartzeaz gain. Beharrezkoa da egin diren aurrerakuntzak, eskole- tako jangelen inguruan, garatzea proiektu pilotuen bitartez. Epe erdirako helburuak markatu beharra ditugu, ekintzak hobeto antolatzeko. **Bost urtetako epean, erosketa publiko bidez eskaintzen den elikaduraren %40a tokian tokikoa eta gertukoa izatea** (lehentasuna emanez baserriratze berriei eta eskala txiki-ertaineko ekoizpenei) proposatzen dugu. Eta 2027 urtera begira zifra hori %55era igotzea. Ekintza hauek gainera elikagaien biltegi publiko baten sorrera ahalbidetuko dute, bertan ekoizleak beraien ekoizpenaren portzentaia bat (%20/30)bertara bideratzearen konpromezua hartuko lukete, administrazio publiko eta ekoizleen arteko konpromezua bilatuz. Proposamen hauen egitea gauzatzeko beharrezkoa da Elikagaien kontseilu lokal eta komarkalak artikulatuko dituen prozesuak bultzatzea. Bilbo eta Iruñea bezalako hiriak Milango hitzarmenean inplikatzeko bide honetan jarraitzeko erreferentzia izan litezke. Modu berdintsuan Donostiako ekimena, gaur egun ekoizpen lokaleko ortuarrien kontsumoa %3,5ean kokatzen da eta bere %10era heltzeko helburua hiria jasangarria eta tokian tokikoa izateko bide onetik doa.

Ekoizpena kontsumo lokaletara bideratzea (tokian tokiko merkatuak, kontsumo taldeak, denda txikiak, denda gune handiak, teknologia berriak...) beharrezkoa da planteatzen ditugun aldaketetan kontsumoa transformazio eta soporte elementu moduan bilakatzeko. Kontsumitzen dugun bakoitzean, gure erabakitze eskubidea gauzatzen gabilta, eta elikadurari dagokionez, erosketa bakoitza eta kontsumo bakoitza ekintza politiko batean bihurtzen da. Norbanakoaren edo kolektiboaren ekintza honek gero eta argiago “jaten duguna gara” esaten du. Kontsumo talde, kolektibo edo kooperatiben azken urteetako hazkundera, kontsumitzen ditugun elikagaien inguruko sentsibilizazio prozesuan inflexio puntu garrantzitsu bihurtu da; eta berauen aniztasuna edo heterogeneotasuna ezaugarri adierazleak izan dira eta badira. Baina guzti hau ez da bateraezina kontrastea eta elkarlana bilatzen duten espazioen bilaketaren beharrezanarekin. Azpimarra beharra dugu kontsumo taldeak gaur egun ere ezinbesteko ditugula nekazal lanetan pertsona berrien integrazioan. Komertzializazio finko baten segurtasunak, batez ere hasierako urteetan, bideragarritasun ekonomikoa ematen du, eta kontsumitzaile eta ekoizlearen arteko harreman zuzena beharrezkoa da. Proiektu hauek alde onak izan arren, sentsibleak izan beharra dugu akats izaera hartzen dabiltzan joerekin. Aniztasunak eta heterogeneotasunak ez badute loturarik sortutako ekimen ezberdinekin, dinamika murriztuetan sar gaitzake. Garrantzitsua da kolaborazio eta kontraste dinamikak mantentzea eta berreskuratzea kontsumo taldeen artean, soluzio

kolektiboak aurkitu prekarizazio prozesuen aurrean, otzaren formulari erlazio berriak sendotzeko merkatu eta denda txikiak gehitu, parte hartzaileak izan banaketaren inguruko ekimen berrietan, lidergoa erraztu eta elkarbanatu kontsumitzaileekin (AMAPs adibidea) kontsumo taldeen dinamika eta kudeaketari dagokionez (konpromezu mailak berdindu bi noranzkotan), eta komunikazioaren formula pedagogikoetan aurrera egin, gure ekoizpen eredua eta amaiera prezioaren eraikuntza elementu konfiantza eragile moduan eraikiz.

Tokian tokiko apustuak ere merkatu lokal eta denda txikietan ere izaten ari da oihartzuna. Espazio hauek indartzen jarraitu beharra dugu, produktu lokal eta garaikoei lehentasuna emanaz (baserritar txikiek era zuzenean ekoiztutakoak), eta kontsumitzailearen aldetik konplizitate handiagoa bilatu behar dugu promozio mekanismoetatik baliatuz eta ekonomia sozialean beharrezko aktibitatea dela onartuz.

Tokian tokiko elikagaien kontsumoak eragin ikaragarria izan du supermerkatu handietan, batez ere behar duen inboluzio nibelari so eginez. Hau dela eta, hasieran ematen du kontsumitzailearen eskaerari erantzuten dion estrategia bat dela eta ez bide honetan garapen eredu bezala. Interpretazioetatik haratago, aldaketa hauek izaera estrategikoko elementu bilakatuko dituzten irizpide eta mekanismoak ezarri behar ditugu. Salmenta zuzenak eta denda txikien bidezkoak Elikadura Burujabetzaren printzipioen %100 betetzen du komertzializazioari dagokionez, baina ez du %100 betetzen komertzializazio eta banaketa orokorrean. Datu honetatik abiatuta, banaketa elikadura burujabetzaren baitan sartzen dugu, eta honela, garrantzitsua da honen garapena definituko dituen gakoak kontuan izatea: Epe ertainera komertzializazio itunak (bost urte) instalazio prozesu kolektiboak indartzen dituen; produktuaren jatorria eta etiketa bikoitza (ekoizleak jasotako prezioa eta kontsumitzaileak ordaindutakoa zehaztuz); amaiera prezioaren %50 ekoizleri bueltatuz eta kostu totala betetzen duena; kalitate konpromezua ekoizlearen partetik promozio kanpainetaz lagundua; ordainketa epeak Elikagaien Katearen Legeak ezartzen dituen baina baxuagoa... Akordio hauek sindikatuek bermatua egon beharko lukete, eta lotura zuzena izan beharko lukete botere publikoek finantzatutako promozio kanpainekin.

Beste alde batetik, kontzientziazio eta elikagai lokalen apustu mailak mantentzeko beharrezkoa da sentsibilizazio diskurtso eta kanpainak mantentzea, baita formazio eta informazio bideak kontsumitzailearekiko; batez ere, elikagai osasuntsu eta arduratsu baterako atxikipena mantendu edota indartu nahi badugu.

Kontsumitzen dugun bakoitzean, gure erabakitze eskubidea gauzatzen gabiltza, eta elikadurari dagokionez, erosketa bakoitza eta kontsumo bakoitza ekintza politiko batean bihurtzen da. Norbanakoaren edo kolektiboaren ekintza honek gero eta argiago "jaten duguna gara" esaten du.

Salmenta zuzenak eta denda txikien bidezkoak Elikadura Burujabetzaren printzipioen %100 betetzen du komertzializazioari dagokionez, baina ez du %100 betetzen komertzializazio eta banaketa orokorrean. Datu honetatik abiatuta, banaketa elikadura burujabetzaren baitan sartzen dugu

Denontzako elikagai osasuntsuak bermatzeko sektoreko egitura eta produkzioa bideratzea

Ekoizpenaren kontrolerako mekanismoen kentzearekin bizkortu diren ekoizpen kontzentrazio prozesuak aldatzeko oso garrantzitsua da oinarriak definitzen joatea. **Behi esnearen** sektorean, behin kuoten sistema kenduta, kontsumo eta ekoizpen oreka mantentzeko erremienta publikoaren ezak, industriak prezioak bere erabaki soilez inposatzea ahalbidetu du, baita ekoizpen kostuen azpitik ere. Industria da erabakitzen ari dena, zenbat ekoizten den, ze preziotan, zein kalitate neurritan eta non ekoizten den biltze sistemaren arabera. Egoera honen adibide esanguratsu bat Nafarroan ematen ari da Danoneren eskutik. Hasieran Baztango esplotazio batzuetako esnea hartzeari uzten dio, gerora gaur egun biltzen dituen esplotazioei ikaragarritzko igoera eskatuz (esaterako, gaur egun 500 behiz hornitutako esplotazioetan beraien tamaina bikoizteko proiektuak aurkezten ditu, 1.000 behi). Sektorea esplotazio industrial gutxiagoko etorkizun batera bideratzen dute, geratzen direnak tamaina handikoak izanik, garapen orekatu batetako ikuspuntutik bidera ezina. Kontzentrazio prozesua berria ez bada, bai ordea deslokalizazioarena. Joera hau maila lolakean pairatzen ari gara lehen esan bezala, baina baditu ere beste eskala bateko bertsioak. Eta berriro diogu, jada Euskal Herrian ematen ari da, bertan aurkitzen baita Estatu mailako behi industria handiena, Caparrosoko 4.000 behi dituen esplotazioa. Eta bertatik kilometro gutxitara, Sorian 20.000 behiko beste esplotazio bat jartzeko proiektua dago, hau ere Caparrosoko talde berdinak bultzatua. Negozio proiektu hauek esku lan merkea, ekoizpen funtzio gabeko landa eremua (zimaurrea eta garnua botatzeko soilik) eta administrazioaren konplizitatea behar dute. Beharrezkoa da beraz gure administrazioen aldetik konpromiso zorrotz bat, honelako proiektuak eman ez daitezzen. Baina batez ere beharrezkoa da oposizio sozial bat aktibatzea honelako ekoizpen mega proiektuen aurrean, ondorioak sektore guztirako alda ezinak izan baitaitezke. Eta gizarte aktibazio horretan, ekoizpen aldean kontsumitzailearentzako agerikoak diren elementu desberdintzaileak gehitu behar ditugu. Eta honetan transformazio industriak, eta ontziratze eta esne komertzializazio proiektuak, distribuzioarekin dauken akordioez haratago, oinarritzko protagonismoa izan dezakete. Kontsumitzaileari produktu ezberdindu bat eskainiz (elikagai transgeniko gabe elikatutako abereak, artzaintzan oinarritutako esnea, esne ekologikoa...). Bide horretan zer aztertu eta zer ikertu badago, baina nora begiratu badaukagu. Holandan esaterako, artzaintzan oinarritutako esnea goraka doa, honela herrialdeak bere gazten desberdintzea horretan oinarritzen du. Honela, gaur egun bertako behi esneen esplotazioen %78ak urtean 120 egun artzain eremuetan dituzte (6 ordu eguneko) eta 15 esne industria konprometituak daude artzain esnearekin, eta bere markarekin. Alemanian, geroz eta gorago doa transgeniko gabeko esnearen produkzio kuota, Bavieran batzen den esnearen %22a. Ekoizleei gainera, esne normalaren aldean %8 gehiago ordaintzen zaie. Joera honek geroz eta indar gehiago du, hemen kokatzen ditugu Leche Celta eta Central Lechera Asturiana 2018rako eginiko apustua artzain esne eta animalien ongizaterako, 150 egun artzain eremuan, egunean 5 ordu. Mota honetako ekimenek garrantzia handi izan dezakete ekoizpen

Industria da erabakitzen ari dena, zenbat ekoizten den, ze preziotan, zein kalitate neurritan eta non ekoizten den biltze sistemaren arabera. Egoera honen adibide esanguratsu bat Nafarroan ematen ari da Danoneren eskutik. Hasieran Baztango esplotazio batzuetako esnea hartzeari uzten dio, gerora gaur egun biltzen dituen esplotazioei ikaragarritzko igoera eskatuz (esaterako, gaur egun 500 behiz hornitutako esplotazioetan beraien tamaina bikoizteko proiektuak aurkezten ditu, 1.000 behi)

ereduaren ber-orientazioan, halaber kontsumitzailearentzako elikadura osasuntsuago bat eskainiz, baina ekoizpen katetik, transformaziotik, distribuzio eta komertzializazioan konpromiso zorrotz bat exijitzen du, botere publikoen babesaz gain.

Egoera berdintsuan aurkitzen da **behi okelaren ekoizpena**, non tokian tokiko okelaren eskaera handiak gizendegi handietan kontzentratzearen tentazioa ekarri du. Hornikuntzari soilik begiratuta eginiko interpretazioa, ekoizpen eredia eta animalien elikadura kontutan hartu gabe. Alde batetik hiltegien proiektzio eta estruktura orekatu eta lokalizatuago bat ez izateak, abereen gizentze ekoizpen eta amaiera bera ere beheratza joatea ekartzen du. Hiltegien faltak (batez ere Bizkaia eta Araban) landa eremuetako txahalek beraien gizentze zikloa beste esplotazio batzuetan bukatu beharra dakar (ez beti Euskal Herrian), honela ekoizpen lokala deslokalizatuz. Beraz, beharrezkoa da okela ekoizpen guztirako (behiak, ardiak, hegaztiak...) hiltegiak bermatzea bertako ekoizpen eta kontsumoa bultzatu nahi badugu. Eta gai honetan, administrazio publikoaren erantzukizuna lehenbizikoa da. Osasun aginpide lokalen posizionatze historikoaren ondorio argiak ateratzea oso garrantzitsua da, batez ere, Europa mailan ikusi ahal izan dutenean hiltegi ezberdinen elkarbizitza bi marko ezberdinetan, lokalean eta eskualdekoan. Berriz ere Baviera adibide moduan, garapen lokala ahalbidetuz, hiltegiak oinarri dira okela lokalaren produkzio eta kontsumoaren mantentze eta aktibazioan. Batez ere kontutan izanda hiltegiek haragi ekoizpenean duten paper transbertsala, bai behi, txarri, hegazti zein untxietan.

Txerri, hegazti eta untxi haragian eman diren aurrerakuntzek kalitatezko ekoizpenarekin lotutako markak egotera ekarri gaitu, baina kalitate honek bat egin behar du hiltegiatako zerbitzuekin. Beraz, garrantzitsua da eztabaida osasunarekin lotua ez dagoela azpimarratzea, baizik eta nola bultzatu ekoizpen propio bat eta kontsumo lokal bat, non inguruko hilte-



beharrezkoa da okela ekoizpen guztirako (behiak, ardiak, hegaztiak...) hiltegiak bermatzea bertako ekoizpen eta kontsumoa bultzatu nahi badugu. Eta gai honetan, administrazio publikoaren erantzukizuna lehenbizikoa da

giak, lurraldearekin identifikatuak, giltza diren. Bestalde, behi haragiaz hitz egiten dugunean, ezinbestekoa da esne ekoizpen-era bideratutako esplotazioak barneratzea bertan, okelarako ezaugarri onak dituzten arrazetara bakarrik ez mugatzea. Ekoizpena dibertsifikatzeko prozesuaren parte da esne ekoizpenetan okelaren balio ekonomikoa berreskuratzea, iraunkortasunean eta ekoizpen eredian aldaketetan aurrera egitea, eta batez ere, eskaera ekoizpena baino handiagoa den testuinguruan ekoizpen ahalmena areagotzea. Beharrezkoa da ikuspegi orokorrago bat berreskuratzea eta garapen orekatuago bat oztokatzen duten ikuspegi sektorialak garaitzea.

Ardi esnearen sektorean, non geroz eta inkorporazio gehiago ematen ari den, batez ere, gerora gaztagintzara bideratuko den esnean Artzain gazta eta Sor marken (Idiazabal, Ossau Irati eta Erronkari) babesean. Hala ere, beharrezkoa da ziklikoki sortzen diren eztabaidak identifikatzea, esnearen eta arkumearen prezioa edo gazta saltzearen zailtasunekin lotuak. Honela, garrantzitsua da aurrera egitea eta



**Beharrezkoa da ziklikoki
sortzen diren eztabaidak
identifikatzea, esnearen
eta arkumearen prezioa
edo gazta saltzearen
zailtasunekin lotuak**

**Sor markako gazten
transformazioko etorkizunean
industria protagonismoa
beregantzen dabil, erdigunea
eta protagonismo hori
ekoizlean egon beharko zen
unean**

irizpideak bateratzea Sor marken artean ardien elikaduraren inguruan (transgeniko gabea, siloratze bazka ez erabiltzea...) eta ekoizpenerako kontrol mekanismoetan, Sor marken baitan transformazio industriaren paperean (Sor marka duen gaztarekin esklusibitatea) eta arkume okelaren balioa berreskuratzea produktu ezberdindu bat eginez (elikadura eta zaintza konketu batekin) Euskal Herriko merkatuak hornituko dituen komertzializaziorako mekanismoak aktibatzeke; kontutan izanik denboraldiko produktu batetaz hitz egiten ari garela. Gai hauen inguruan dagoen eztabaida ezak bidea zabaltzen dio transformazio industriak amaierako produktu ezberdinduaren onurak kapitalizatzeko, amaiera salneurria ezarriz (baxua) esnearen preziotik eratorria. Eta batez ere, formatu berriak ari dira ematen, gaztaren salmenta zuzenak jasandako geldialdia ekoizlearen aldetik, honela ekoizlea esne saltzaile bihurtzen da transformazioa ekoizletik industria igoz. Edozein kasutan, sor markako gazten transformazioko etorkizunean industria protagonismoa bereganatzen dabil, erdigunea eta protagonismo hori ekoizlean egon beharko zen unean. Eztabaida hauek berreskuratzea eta aurrera egiteak sektorea sendotu beharko luke, eta ez proposamen koiuntural eta efektistei lotuta egonda soilik.

Kontutan izan behar ditugu ere, artzaintza estentsiboan **okelarako ardiak** osatutako artaldeak, Nafarroako Erdi eta Erribera zonaldeetako laboreen lastoen aprobetxamenduan oinarrituak, mendietako larretan eta Bardenetan, Nafarroako arrazako ardi autoktonoen bidez. Hauetan, herri askotako legediek paper garrantzitsua dute belar eskubideetan, beharrezkoa izanik jende berria txertatzea

artzantzara, larreen eta belarren erabilerara. Norbere nortasuna mantendu eta indartu behar du artzantza estiloak izendapen eta identifikazio geografikoen bidez.

**Ortuari eta fruta
ekoizpena (kantauri
isurialdekoa) da instalazio
berri gehien pausoka eta
inbertsio ekonomiko
handiegi gabe
ahalbidetzen duena**

Hegazti ekoizpena ekoizpen industrialaren ondorioak argien pairatu dituen sektorea da. Osasun krisiak, ia klinikoak, ekoizpenaren masifikazioaren eskutik datoz, non integrazioa adierazpen handiena den; ekoizpen aldetik autonomia galera baten ezaugarritua, finkotasun (irreal) erlatibo baten ordainetan. Hedadura eta ekoizpen eredu hauetarako marko legal baten gabeziak babes eza dakar (Iparraldean emanikoa ahatean osasun krisiaren aurrean adibidez). Hego Euskal Herrian Lumagorri oilaskoen eta arraultza ekoizpenean (baserrikoa edo ekologikoa) integratutako ekoizpenaren adibide garbiak dira. Legediak ekoizpen errealtateetara moldatzea eta ekoizpen estentsiboagoak kanpo imputsenganako menpekotasun gutxiagoko dinamikak bultzatzearen eskutik joan litezke, jakinda ekoizpen hauek kontsumo handikoak direla. Berriz ere kontsumitzailearen aurrean zintzoak izateko beharrezanean, produktu ezberdin bat eskainiz, bai itxuran eta bai ekoizpen prozesuan.

**Nekazal eskolak beteta
ditugu, inkorporazio planak
botere publikoetatik
definituak, lurrera sarbidea
bermatzen duten
mekanismo publikoa,
komertzializazio katean
eskaera lokalizatua,...
Ekoizpena bideratutako
inkorporazioan
oinarritutako prozesuari
ekin behar diogu**

Ortuari eta fruta ekoizpena (kantauri isurialdekoa) da instalazio berri gehien pausoka eta inbertsio ekonomiko handiegi gabe ahalbidetzen duena. Azpimarra genezake hau dela sektorearekin erlazionatzeko nahia dutenen artean arrakasta gehien duena, ekoizpen agroekologikoa eta jasangarria izanik gehien aurrera eramaten dena. Gainera, esan beharra dago, kontsumitzailearen partetik geroz eta eskaera handiagoa dagoela tokian tokiko eta garaiko ortuari eta frutak kontsumitzeko. Biderkatzen ari dira kontsumo talde eta kolektiboak, jangela publikoak eta jatetxeak, eros gune handiak,... zeintzuek jo puntutat bertakoa eta iraunkorra den ortuaria duten. Baina eskaera ekoizpena baino handiagoa denaren lehen arrastoak atzematen gabilta, garrantzitsua da beraz, inkorporazio berriak ematea ekoizpenean. Nekazal eskolak beteta ditugu, inkorporazio planak botere publikoetatik definituak, lurrera sarbidea bermatzen duten mekanismo publikoa, komertzializazio katean eskaera lokalizatua,... Ekoizpena bideratutako inkorporazioan oinarritutako prozesuari ekin behar diogu, sektoretik urte askotan zehar landutako eta eskatutako aukera galtzen ibiliko gara ez badugu modu eraginkor batean jarduten. **Ortuari eta fruta ekoizpen mediterraneo edo kontinental** (Nafarroako Erribera eta Arabako parte bat) historikoko merkatuko gorabeheren menpe egon da, inongo erregulazio mekanismo gabe eta Fruta eta Barazkien Ekoizleen Antolakundeek (OPHF) alde komertziala antolatze ahaleginek ere porrot egin dute. Izan ere, komertzializatzaileak izan ziren neurri handi batean OPFHtan bihurtu zirenak, laguntzen onuradunak azken finean. Hasierako ekoizpen partearen antolaketa eta ekoizpen ereduaren funtzioari muzin eginik. Garrantzitsua da baita, sektore honetan erregularizazio mekanismoen eskaera Europa mailan, baina batez ere garrantzitsua da Euskal Herriko barne merkatura bideratzea ekoizpena (eredu jasangarriak eta betiko ureztatze sistema tradizionalak mantenduz) eta komertzializazioa.

**Laborantza estentsiboan
(zerealak) merkatuen
liberalizazioak
abeltzaintzako
sektoreetan desoreka
handi bat eragin zuen
salneurrien espekulazioa
dela eta, salneurrien
erreferentzia zentroa
Chicagoko Burtsa izanik,
etorkizuneko salneurrien
sisteman oinarriturik**

Laborantza estentsiboan (zerealak) merkatuen liberalizazioak abeltzaintzako sektoreetan desoreka handi bat eragin zuen salneurrien espekulazioa dela eta, salneurrien erreferentzia zentroa Chicagoko Burtsa izanik, etorkizuneko salneurrien sisteman oinarriturik. Testuinguru honen harira, etekin gehiago lortzearen dinamika gailentzen den jokaera da, eta honek ez du zertan ekoizpen parterako etekin handiagoa esan nahi. Herrialde ikuspegia berreskuratzea beharrezkoa da bai ekoizle eta bai kontsumitzaile aldetik (abeltzaintzan, okingintzan...), epe erdi-luzerako strategiengatik apustua egin eta prozesu espekulatiboetaz ihesi barne merkatu egonkorak finkatu. Bestalde, garrantzitsua da ekoizpen-barne kontsumo eskema horretan sakontzea, errotazio sistemetan

proteina begetalen ekoizpena bermatuz eta honela kanpo dependentzia murriztuz, baita okingintzarako irinaren transformazioaren balio gehigarrian aurrera egitea. Bazka eta pentsurako proteinen ekoizpenean hobetzeak, eta bazka sareak sortu eta indartzeak herrialde gisa izaera estrategikoa izan behar du, non ekoizpenak eta kontsumitzaileek pentsu kooperatiben konplizitatea izan beharko luketen ekoizpena, transformazioa eta kontsumoa antolatu eta koordinatzeko asmoarekin, instituzioen babesarekin. Antzeko hausnarketa bat merezi du erremolatxaren egoerak, Europako merkatuan kuoten deusezteak azukre industriaren eskuetan utzi du gai hau non eta nola ekoiztearen erabakia. Salneurrien beherakadak sektore honetan ekoizpena deslokalizatu dezake eta Araban ekoizpen hau adierazgarria izan da. Alternatibak ekoizpen defizitarioei eta sektorearen (nekazaritza eta abeltzantza) mantentzea bermatzeko beharrezkoei zuzenduak behar lukete. Eta gainbehera datorren beste ekoizpen baten inguruan, patataren kasuan esan genezake esportazio dinamikek porrota izan dutela eta patataren ekoizpen jasangarriago eta anitzago baten ber-orientazioak, administrazioen apustu finkoak hurbileko elikagaien erosketa publikoan (patata jangela publikoetan gehien kontsumitzen den elikagaia da) etorkizunera begira oinarri trinko batzuk ezar ditzake.

Basoak eta biomasa berriak ere iraunkortasunaren trenera igo dira. Eustaten datu ofizialen arabera radiata pinuak hartzen duen hedadura EAEn 140 mila hektareatakoa da, honi eukalipto eta beste pinu motena gehituz 200 mila hektareatan jartzen gara. Nekazaritza eta abeltzaintzagatik okupatua dagoen kantitate bera, elikadura ekoizpen-erara bideratutakoaren berdina alegia. Datuak eztabaida ezin dira, eta argi erakusten dute baliabide publikoen eskuragarritasuna eta orientazioa monolaborantza bultzatzera bideratua dagoela. Pena merezi izan duela argumenta dezakete, baina azken bi hamarkadetan zikloa bukatzeko transformazio industriaren eza eman da, eta eraikuntzaren azken urteetako aurrerakadak ezin du egoera orokorra estali; guzti hau egur merkatu gero eta lausotuago eta salneurrien beherakada etengabearekin. Horrelako basogintza politika zentzugabeak ezin dira estali ezta azkenaldiko esportazio operazioekin. Estrategia energetiko berriek biomasari protagonismo berezia eskaintzen diote, berriztagarriak diren energien portzentajearen arabera (2020rako helburu moduan energiaren %20 berriztagarria izan behar da, eta honen %40 biomasatik eratorria). Iraunkortasun handiago baterako garapenean itxura ona du, baina Europako txostenen arabera basogintza nahiko ez dagoela dio kantitate horietara heldu ahal izateko. Beraz lehenengo galderak mahai gainean daude, ze biomasa proiektu eta ze neurritan aurrera eraman nahi dira? Eukaliptoak landatzean babes publikoa biomasara bideratuta al dago? Iraunkortasun argudioak erabiltzen ari dira basogintzan haste azkarreko espezie kantitatea handituz? Eukaliptoaren landatze honek ekar dezakeenaren adibide garbia izan dira Portugal eta Galizian izandako suteak eta akuiferoetan eragindako ondorio kaltegarriak. Mota honetako laborantza jasangarri bezala ikus daiteke? Erantzun posibleak, iraunkortasunaren aitzakiapean gero eta ekoizpen politika intentsiboago eta ez jasangarriak sortuko direnaren arduraz datoz. Honegatik zehaztapen guztiak eskatu behar ditugu biomasa proiektuen aurrean. Tokian tokiko proiektuenganako apustua

Gainbehera datorren beste ekoizpen baten inguruan, patataren kasuan esan genezake esportazio dinamikek porrota izan dutela eta patataren ekoizpen jasangarriago eta anitzago baten ber-orientazioak, administrazioen apustu finkoak hurbileko elikagaien erosketa publikoan (patata jangela publikoetan gehien kontsumitzen den elikagaia da) etorkizunera begira oinarri trinko batzuk ezar ditzake

egiten bada, egur baliabide propioen gestiotik abiatuz, basogintzaren ber-balorazio eta nekazal aktibitatearen funtzio gehigarri bezala berreskuratzeko balio dezake. Ekoizpena biderkatzea pentsatzen bada, biomasa zentro handi bat hornitzeko berriz ere bide okerrean aurkituko gara. Jarrera kritiko bat mantentzea beharrezkoa da, jokoan dagoena elikagaien ekoizpenerako hektarea gehiago galtzea baita, joera alderantzizkoa izan behar denean.

Kalitate politikak identifikazio prozesu eta elikagaien balorizazioari lotuak, gailendu nahi den garapenari dagokionez lehen mailako komunikazio elementu dira. Kontsumitzaileen tokian tokiko elikagaien eskaeraren igoera eta kalitate politikak ekoizpen lokal eta iraunkor baten defentsan integratzearen beharrak, lehenagoko eskema zaharkituetan aldaketa sakonak eskatzen dituzte. Testuinguru honetan sartu behar ditugu Euskal Sagardoaren adibidea sor markarako bidean, Basque label harategiak eginiko gaurkotzea, Arabar Errioxako ardogileen eskaera sor marka propiorako, Idiazabal markaren baitan artzain gazta eta industrialaren arteko bereizketa, Erronkari soilik posible izatea euskal arrazako esnearekin... Guzti honen oinarrian, kalitate politikak berreskuratzeko dago, garapen lokal, iraunkor eta kalitatezko baten defentsan; batez ere kontsumo lokal batera bideratuta, jakitun izanda nazioarteko testuingurua (CETA, TTIP,...) ez dela lagungarri.

Garrantzitsua da azpimarratzea aldaketa hauek funtsezkoak direla ekoizpen alorreko ekimenak, iraganeko joerak apurtuz. Ekimen hauek botere publikoen diskurtsoaren baitan egon arren, beraien ekintzetan erdibidean geratzen dira: Kalitate marketan bertako sagararen erabileraren eskusibitatea kentzeak kanpoko sagarrekin ekoiztutakoei kalitate marka izatea ahalbidetu dio, honela eskusibitate hori soilik Euskal Sagardoa sor markan utziz, Arabar Errioxako ardo bereizgarriaren sor markaren inguruko eztabaida momentuz etentzeak, Idiazabal markaren azken formulak ekoizpen parte ez du asetu. Aldaketa prozesuaren baitan interpreta genitzake, baina honek ekoizpenaren protagonismoa mantentzea exijituko du eta aldaketak produkzioari kasu egin behar diela azpimarratu, bai eremuan eta bai lokalizazioan. Garrantzitsua da azpimarratzea aldaketek alde produktiboa ere barneratu behar dutela, funtsezkoa baita pausu sendoak ematea kalitate marka baten barruan dauden elikagaiak transgeniko eta hormona gabeak izateko bermea lortzeko. Eta ezadostasunen artean jar dezakegu co-branding itunak salmenta espazio handiekin, zeintzuetan produktu lokalaren ospea oparitzen den komertzializazio kopuru teorikoen ordainetan, kontsumitzailearen nahastea handituz. Momentuz esan genezake publizitate edo propaganda efektuak sortzen ditugun elikagaien balorearen ginetik daudela. Eta honek gure ekoizpenak identifikatzean ditugun erronketan gidatu behar gaitu. Modu zuzenean merkaturatzen den elikagai lokalaren gehienak ez du identifikaziorik, eta ez da jasagarria bakoitzak bere marka izatea. Ipar Euskal Herriko IDOKIren kasua adierazgarri izan beharko litzateke identifikazioa orokor baterako (Euskal baserri berreskuratu), ekoizpen jasagarri eta lokal bat nabarmentzeko kontsumitzailearekiko. Agroekologian, ekoizpen arloan inkorporazio prozesuek honelako euskarriak behar ditu (zertifikazioak gaudituz). Transformazio lokaletako osasun baldintzen araudi propio baterako aurrera pausua, autorizazio forman, honelako ekimenez lagundua joan beharko lukete.

Ipar Euskal Herriko IDOKIren kasua adierazgarri izan beharko litzateke identifikazioa orokor baterako (Euskal baserri berreskuratu), ekoizpen jasagarri eta lokal bat nabarmentzeko kontsumitzailearekiko. Agroekologian, ekoizpen arloan inkorporazio prozesuek honelako euskarriak behar ditu



ekoizpen, transformazio, merkaturatze, salneurri eta kontsumo behatokia

Ekoizpenetik kontsumora dagoen erdibideko prozesua proportzionaltasunarekin artikulatua izan behar da, desorekak ekidituz. Fase hau oso erlazionatua dago salneurriaren eraikitzearekin, garrantzitsua da ekoizpenetik hasi eta hurrengo faseak modu ordeatuan sartzea, beti jakitun izanda salneurriak fase guztietako kostuak barneratu behar dituela

Esan beharrik ez dago, behatoki publiko batetaz hitz egiten ari garela, administrazioaz gain katean parte hartzen duten agenteak ere implikatuko dituen

Garrantzitsua da datu objetiboetan oinarritutako iradokizunak ikertu eta proiektatzea ahalbidetzen duen mekanismoarekin kontatzea, ekoizpenetik amaierako kontsumoraino doana eta Euskal Herri osoa aintzat duena. Puntu honetan behatoki baten beharrezana ikusten dugu, ekoizpen, transformazio, merkaturatze, salneurri eta kontsumoa behatzeko. Ekoizpen arloan bai animalia zein pertsonak elikatzeko erabiltzen diren elikagaiak barneratuko lirarteke, ekoizpenetik kantitatez gain lanpostu mailan duen handitasuna, erabilitako lurra, ura eta energia; eta ekoizpen osoaren ikuspen kartografikoa. Gaindegiarekin eraikitzen ari garen herramientarekin zuzenean lotuta dago gaia. Animalien kontsumorako zein pertsonenerako dauden ekoizpen beharrezanetan aurrera egitea beharrezkoa da markatutako helburuekin bat egingo duen lurralde

kudeaketa baterako, eta ekoizpen horren transformazio, banaketa eta merkaturatzerako. Jasangarritasunaren bidetik nekazal ekoizpenean aurrera egiteak kanpo dependentziak murriztea eta baliabide propioak era eraginkorrean kudeatzea eskatzen du. Ekoizpenetik kontsumora dagoen erdibideko prozesua proportzionaltasunarekin artikulatua izan behar da, desorekak ekidituz. Fase hau oso erlazionatua dago salneurriaren eraikitzearekin, garrantzitsua da ekoizpenetik hasi eta hurrengo faseak modu ordeatuan sartzea, beti jakitun izanda salneurriak fase guztietako kostuak barneratu behar dituela.

Laburbilduz, elikadura prozesu guztiari oreka ematean datza, ekoizpenetik azken kontsumora. Modu pedagogikoan ETXALDEtik oreka hori definitzera hausartzen gara: %45 ekoizleari, %30 transformazio eta banaketarako eta %25 merkaturatzerako (batzutan banaketa eta merkaturatzea ekintza bera izanik). Dena dela, behatoki hau izan beharko litzateke jasotze, ikerketa eta proposamenak antolatuko dituen, elikagaien prozesuan oreka bermatuz. Esan beharrik ez dago, behatoki publiko batetaz hitz egiten ari garela, administrazioaz gain katean parte hartzen duten agenteak ere implikatuko dituen. Amaierako kontsumoa barneratuko du, amaiera bolumenak ebaluatuzeko, esportazio eta inportazio tasak, lan poltsa sortzeko epe ertain eta luzerako helburuak proiektatzeko ahalmenarekin, lurraldearen kudeaketa jasangarri eta eraginkorrenarekin, eta biztanleria osoarentzako elikadura osasuntsu eta eskuragarri bat bermatuz.



Nekazal jarduera osotasunean kontutan izan eta gako sozialetan justua den fiskalitate eraginkorra

Ezinbestekoa da fiskalitate gizarre justuago bat eraikitzen joatea guztiontzako. Justua eta eraginkorra baserritarrentzat elikagai ekoizle moduan, eta justua baita ere bakoitzak PFEZean tributatzeko duen oinarriarekiko. Moduloen sistematik estimazio zuzenerako trantzizioa bide honetan kokatzen da, nekazal jarduerak egiten diren lan jarduera guztiak barneratzea beharrezkoa bada ere, transformazioa, ontziratzea, merkaturatzea, agroturismoa...gehituz ekoizpen parte moduan. Honekin batera, fakturazio mugetatik behera dauden nekazal jardueren (50.000€) estimazio zuzena kalkulatzeko sistema sinpleago bat artikulatzearen beharra azpimarra behar dugu. Bestalde, esan beharra daukagu ez dela logikoa laguntza zuzenak ez tributatzea, lehen zutabeko NPB laguntzak zuzenki, errentaren baitan era zuzenean eratorriak baitira. Banaketa estatistikei begiratu gero are ilogikoagoak, administrazioek haurek ere onartzen dute banaketa injustua dela (%20ak laguntzen %80a dute eta Hego Euskal Herriko kasuan eskuratzen duten 3 pertsonetatik 2 ez dira baserritarrak). Bigarren zutabekoei egin beharko litzaizkiete salbuespenak edo dedukzioak (agroambientalak, esplotazioen hobekuntzak, ICMak...), ekoizpen jardueratik hasita helburu sozial batu bat baitute. ETXALDEtik ulertzen dugu, jarraera hau sektorerako eta gizarre osorako justua dela.

Ezinbestekoa da fiskalitate gizarre justuago bat eraikitzen joatea guztiontzako. Justua eta eraginkorra baserritarrentzat elikagai ekoizle moduan, eta justua baita ere bakoitzak PFEZean tributatzeko duen oinarriarekiko

Indarrak biderkatu nekazaritzara jende berri gehiago gehitzeko

Gizarterako elikagaiak sortzearen lana gure ardura dela dakigun moduan, argi daukagu ere, ekoizpen lanetara pertsona gehiago gehitu behar direla. Lan honetan, emakumearen lanaren inguruan defizit historiko bat daukagu, emakumearen jakinduria eta dedikazioa nekazaritza iraunkor eta osasuntsu baten mantentzean. Onarpen honen eskura, azpimarra beharra dugu gure salaketa eta biolentzia matxista deusezteko eraiki beharreko baldintzetan, emakumeen bizia eta duintasunaren kontra baitoaz. Nekazal aktibitateetarako edozein txertatze beti emakume eta gizonen arteko ekitatean (berdintasunean) oinarritu behar da. Mekanismoak bermatzea beharrezkoa da emakumeen benetako txertatzea ahalbidetzeko, bai ekoizle moduan zein ordezkarietan. Hone-tarako informazioa eta formazioa hartu behar ditugu ildo estrategiko moduan, eta laguntza neurriak aldarrikatu dependentzia eta kontziliazio familiarren inguruan, baita lan egoeraren eta lan mundura txertatzearen erregularizazioa. Administrazio publikoetatik artikulatutako instrumentu legalak (emakume baserriaren estatutua) baliabideetatik osatuta egon beharra dute hauen garapena ahalbidetzeko, eta nekazal politika eta elikadura politiken parte izan behar dute, zeintzuetan ekitatea eta justizia soziala oinarri direlarik. Ezinbestekoa da nekazal aktibitatean txertatzean aurki daitezkeen oztupoetan lanean jarraitzea, eta inkorporazio horretan oinarritzkoa lurraren eskuratzean dauden trabak deusezteka. Historikoki gure lan ardatza izan da, Lurralde antolaketa jarraibideetatik hasita, udal antolaketa planekin jarraituz, Lurren bankuak...; eta nahiz eta beharrezko izan alor hauetan gure lan intentsitatea mantentzea, erremienta eta proposamen berrietan aurrera jo behar dugu, zeintzuk modu eraginkorragoan antolatu, eskuratu eta lehenetsi beharra dugu lur emankorra nekazal jardunera txertatzen

diren pertsona berriei eta aktiboan dauden esplotazioei iraunkortasun kota altuagoak kalkulatu. Behar hauen aurrean GAINDE-GIAREKIN (Euskal Herriko ekonomia eta gizarte behatokia) elkarlanean hasi gara nekazal lur eremuak sistematizatuko dituen lan-tresna batean (hasieran Hego Euskal Herria soilik hartuko du baita), honela azterketa, planifikazioa eta gestioa

egiteko helburuarekin. Lan tresna garrantzitsua izan daitekeela ikusten dugu, honela epe labur, ertain eta luzera jardun eta antolatu ahal izateko; gainera LAG, LPP,LPS, HAPO, lur bankuen... inguruko gure proposamenak erakusteko lan tresna bat ere izango zen.

Bestalde ezinbestekoa da instalazio prozesu hauek elikatu eta bideratzea formakuntza eta ondorengo bidelaguntzaren bitartez. Ez dago honetarako bide magikorik, daukagun informazio guztia helaraztea da oinarria, prozesuko etapa bakoitzera egokitua. Gure proposamen teorikoa praktikan oinarritua egotea gehigarri bat da, eta gai honetako lehenetsunak mantentzeko eta markatzeko adierazgarri onena da. Perspektiba eta pazientzia nahikoarekin aritu beharra daukagu gure proposamena baloratzeko alor kualitatibo eta kuantitatiboan. Nekazal eskoletan matrikulatzeko eskaeren igoera (EAEn batez ere), dituzten plazak gaintuz, formakuntza duen pertsona orok nekazal jardueran aritzeko aukera izan behar duenaren erantzukizunean jartzen gaitu. Formakuntzaren gehigarri moduan bidelagun izatea eta beharrezko diren errekurtsoak ahalbidetze oso garrantzitsuak dira txertatze berrietako arrakasta bermatzeko, txertatzea prozesu baten baitan egitea eta modu progresiboan, arakastaren bidean jartzen du. Nekazaritza iraunkor batengatik lan egin nahi badugu, txertatze berriak ere ahalik eta autonomoenak eta zorpen gutxikoak izan beharra dute, araudi zehatzak bideratuz (zerga, kotizazio, osasun baldintza, ...) txertatze horiek era zuzen baten laguntzeko. Bide honetatik, eta azpisektorearen arabera, bide posible bat nekazal jarduna beste motatako jardun batekin konbinatzea litzateke. Era berdinean, azpimarra beharra dago denbora baterako nekazal jardunean aritzearen balioa, baserriaren eremuetan hamarkada askotan eredu izan dena.

Gizarterako elikagaiak sortzearen lana gure ardura dela dakigun moduan, argi daukagu ere, ekoizpen lanetara pertsona gehiago gehitu behar direla

Emakumearen lanaren inguruan defizit historiko bat daukagu, emakumearen jakinduria eta dedikazioa nekazaritza iraunkor eta osasuntsu baten mantentzean

Ezinbestekoa da nekazal aktibitatean txertatzean aurki daitezkeen oztupoetan lanean jarraitzea, eta inkorporazio horretan oinarritzkoa lurraren eskuratzean dauden trabak deusezteka



ANDOAIN 2018 MARTXOA

